

Lur Korta:***“Orain ipuin kontalari batzuen artean elkarte bat egitea pentsatzen ari gara”***

Lur Korta. 15 urte baino gehiagoko lan-esperientzia. Profesionala. Euskal Herrian lan egiten du. Gehien bat euskaraz eta haurrentzat. Hizkuntzak: Euskara eta Gaztelania.

TK.- Noiztik eta noiz arte?

L.K.- Aspalditik, arte dramatiko ikasketak egiten ari nintzelarik, praktika batzuk egiteko izena eman nuen ipuinak kontatzen Iruñeko kultur etxeetan. Oiartzungo liburutegira joan nintzen informazio bila eta hango liburuzainarekin hitz egiten, Anarekin, berak komentatu zidan bertan zebilena haurdun zegoela eta ea egingo nuen saioren bat. Hortik aurrera 500 saio baino gehiago egin ditut.

TK.- Zu definitzen zaituen ipuin bat.

L.K.- Galdera zaila da baina Osaba otsoren ipuineko Karmelerekin agian identifikatu naiteke. Neskato kaskarina eta tripontzia, argia eta errekurtsio handikoa.

140**TK.- Izenari gagozkiola, nola izendatuko zenuke zeure burua: ipuin-kontalaria, ahozko ipuinlaria, antzezlea...**

L.K.-Ipuin kontalari bat zer den argitzea oso zaila eta erreza da era berean, ni aktore sentitzen naiz eta horren barruan ipuinak kontatzen ditut, abestu edo eta dantzatu dezakedan moduan, nire gorputzarekin adierazten ditut istorioak.

TK.- Zer da eta zer ez da ipuin kontalari bat?

L.K.- Ipuin saio bat niretzat ipuin bat hartu eta hori antzeztea da, gertatu balitzaizuke bezala adieraztea. Hala ere modu eta teknika ezberdinak daude, bada ipuinekin berarekin kontatzen duena, txotxongiloekin... Bakoitzak gustatzen zaiona eta funtzionatzen dionari jarraitu behar dio.

TK.- Nolakoa da ipuin kontalariaren formakuntza?

L.K.- Azken egun hauetan horri buruz galdezka ari zaizkit; ipuin kontalari baten formakuntza aktore batena bezalakoa da, ez da inoiz bukatzen, une oro egon behar zara lanean, ipuinak bilatzen, moduak pentsatzen ahotsa lantzen, gorputza ere ez dadin herdoildu.

TK.- Bakarrik jardun, elkarte edo enpresa bat sortu, boluntarioritza... zein da zure egoera eta zer abantail eta eragozpen ditu?

L.K.- Bakarrik eta taldean kontatzen ditut ipuinak. Aitortu behar dut nahiago dudala taldean kontatzea. Ziurrenik oso lankide onak ditudalako. Prestaketa eta ipuin saioa bera ere askoz borobilagoa da niretzat. Autonomia naiz. Orain ipuin kontalari batzuen artean elkarte bat egitea pentsatzen ari gara.

TK.- Zein da ipuin kontalari baten sentsazioa liburutegi batean dagoenean?, zer iduritzen zaizu liburutegia antzezleku bezala?

L.K.- Oso galdera zabala da, izan ere liburutegi bakoitzaren ezaugarriak oso ezberdinak direlako eta liburuzain bakoitzak ikuspegi ezberdinak dituelako. Orokorrean hala ere leku egokia dela iruditzen zait eta liburutegi bakoitzak bere xarma baduela iruditzen zait.

TK.- Ikusleak (hala idealak nola 'errukigabeak', daukaten formakuntza...)

L.K.- Ikusleen artean denetarik dago, zein den egokiena? Ipuinak ikustera etorri nahi duena eta ipuinak gustuko dituena. Hori daukanak errespetuz eta esker handiz entzuten eta gozaten ditu saioak.

Arazo nabarmenena hori da, batzuetan helduak nahi duelako joaten dela umea saioetara eta hor sortzen da gatazka.

TK.- Izan (edo ez izan) ipuin kontalaria Nafarroan 2014. urtean. Nola ikusten duzu egungo egoera?

L.K.- Egoera aspaldidanik berdina da, bakoitzak landu behar du bere egoera, nire kasuan ez naiz kecatzen, afera da ipuin kontularitza beste arlo batzuekin tartekatzen dudala, antzerkia, antzerki klaseak, animazioak, liburutegietako gidak etab.

